

DIRU-ITURRIAK

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Erosketak online egingo dira, orduan, ordaintzeko era online izango da, paypal, visa mastercard... Garrantzia emango diogu Paypaleri, honekin bezeroen lasaitasuna lortuko dugu. Batzutan orri arraroetan erosketak egiterakoan, atzera botatzen gara, timo bat izan ahal delako, baina gure kasuan herriko dendak bertan dituzte, konfiantza handiagoa izango da. Dirua aktiboen salmentarengatik lortuko dugu. Prezioak dinamikoak izango dira, eskaintza bereziak egingo dira, Black Friday, Cyber Monday... Gainera, gustoko duzun denda batean ahalko duzu aktibatu oferta abisua, denda horretan oferta bat ateratzen bada mugikorrera abisu bat iritsiko zaizu.

Guk webgunearen irabazietatik ez dugu probetxu ekonomikorik aterako, lortutako irabazi guztiak dendentzat izango dira eta horretaz gain gastuak ordaintzeko. Dendek gutxi saltzen dutenez, momentu honetan produktuen prezioak nahiko altuak dira, gastuak ere ordaindu behar dituztelako, hala ere, gehiago saltzen hasten diren heinean prezio baxuagoak jartzeko aukera edukiko dute.

Prozesua: Bezeroa web gunean sartzen da berak nahi duen produktuaren bila eta erosi egiten du. Erosten duen momentuan banatzaileak martxan jartzen dira eta produktua dendan jaso ondoren bezeroak webgunean jarritako helbidera helarazten du. Bezeroaren ordainketa erosketa egiterakoan (ordaintzeko era desberdinak erabiliz) edo produktua jasotzerakoan, eskura, ordaindu dezake.

Salmenten %10 soldatak ordaintzera joango da, proiektuan parte hartzen duten guztiena eta berrikuntzaren baterako ere izango da.

